Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko urriaren 24a, astelehena — 201 — Lunes, a 24 de octubre de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OÑATIKO UDALA

*«Oñatiko arautotako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantza.» behin betiko izaeraz onartzea.*

2016ko ekainaren 30eko Udal Plenoaren erabakiz «Oñatiko araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantza» hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki zen. Aipaturiko erabakiak jendeagirian egon den 30 eguneko epean hiru alegazio jaso dira: lehena Angel Barrena jaunak aurkeztutakoa, bigarrena Cristina M.ª Val eta hirugarrena Vanessa Carmona andreak eta kale Zaharra/ San Anton kaleko bizalgunek egindakoa.

Aurreko ikusirik, 2016ko irailaren 27ko Udal Plenoaren gehiengo erabakiz erabaki ziren: a) lehengo eta bigarren alegazioak onartzea eta hirugarrena zati batean onartzea eta b) behin betiko izaeraz onartzea aipaturiko Araudia. Era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitara ematea erabaki delarik.

Adierazten da, Ordenantza honen aurka, Administrazio Auzigaietako Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoan, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara.

Oñati, 2016ko urriaren 17a.—Alkatea. (7240)

### ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA

*1. artikulua.*

Trafiko eta Zirkulazio arloko ordenantza hau egin du Oñatiko Udalak honako lege hauek ematen dioten eskumenen arabera: apirilaren 2ko 7/85 legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena (25.2g artikulua); eta urriaren 30eko 6/2015 Errege Dekretu Legegilearen 7 artikulua Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko testu artikulatua onartzekoa denak.

*2. artikulua.*

Ordenantza honen helburua araututako aparkalekuen udal Zerbitzu publikoa arautzea da.

*3. artikulua.*

Zerbitzu publiko horren helburua aparkaleku eskariari aurre egitea da, hiriaren kalitatea eta irisgarritasunaren helburu orokorrak kontuan hartuta, herriguneko merkataritza eta zerbitzuetara iristea ahalbideratzea, erabilera publikoa duten bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze-aldiak modu funtzional batean antolatzea, eta betearazteko ere neurriak ezartzea.

*4. artikulua.*

Araudiaren barruan aparkatzeko denbora tartea mugatuko da, baita kokalekuak ere, guneak eta ordutegiak bereizita, orde-

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Aprobación definitiva de la «ordenanza del servicio municipal de estacionamiento regulado de Oñati».*

Por acuerdo Plenario de fecha 30 de junio de 2016, se aprobó con carácter inicial la «Ordenanza del servicio municipal de estacionamiento regulado de Oñati.» El citado acuerdo fue expuesto por término de 30 días en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 7 de julio de 2016 (n.º 129) y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el citado período se recibieron tres alegaciones, la primera presentada por D. Angel Barrena, la segunda por D.ª Cristina M.ª Val y la tercera por Vanessa Carmona y vecinos de Kale Zaharra/ San Anton.

Visto lo anterior el Pleno Municipal reunido en sesión de fecha 27 de septiembre de 2016, adoptó por mayoría: a) la aprobación de las dos primeras alegaciones y parte de la tercera y b) la aprobación de la citada Ordenanza con carácter definitivo y su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra la presente Ordenanza, se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Oñati, a 17 de octubre de 2016.—El alcalde. (7240)

### ORDENANZA DEL SERVICIO MUNICIPAL DE ESTACIONAMIENTO REGULADO

*Artículo 1.º*

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Municipio en materia de tráfico y circulación tanto por el artículo 25.2.g) de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, como por el art.7 del Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

*Artículo 2.º*

El objeto de la presente Ordenanza es establecer las normas que han de regular el Servicio Público municipal de estacionamiento regulado.

*Artículo 3.º*

El objeto de dicho servicio público es atender adecuadamente la demanda de estacionamiento, dentro de los objetivos generales de calidad urbana y accesibilidad, mediante la ordenación funcional, espacial y temporal de los estacionamientos de vehículos en las vías y aparcamientos de uso público, estableciendo medidas para garantizar su cumplimiento.

*Artículo 4.º*

Esta regulación implica la limitación del tiempo de estacionamiento, así como la localización de su ámbito territorial de

EK\CV GAO-I-2016-07240

nantza honetako arauen arabera. Araututako aparkaleku gisa behar den bezala seinaleztatuta dauden gune edo bide publikoetan ibilgailu bat aparkatzeagatik ez da ordaindu beharrik izango.

*5. artikulua.*

Ordenantza honetako 3. artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, haizetakoaren barnealdean, eta kanpoaldetik osorik ikusteko moduan, makina automatikotik hartu eta aparkatzea baimentzen duen tiketa edo baimendutako guneetarako aplikagarri den guneko bertakoentzako bereizgarria jarri beharko da.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherek hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak ordenantza honetan araututako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe lagatzeko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztutako guneetan ez dute aparkatzeko tiketik jarri beharko ondoren aipatzen direnak:

— Zamalanak egiten ari diren ibilgailu komertzialak.

— Autotaxiak, gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.

Larrialdietako ibilgailuak, zerbitzua ematen ari direnean.

— Udal zerbitzuetako ibilgailuak.

*6. artikulua.*

Aparkatze-aldiak gune eta ordu hauetan mugatuko dira:

a) 1 gunea: Kale Zaharra ingurua (Aita Madina Unibertsitate etorbidetik 3 zenbakira arte): Lanegunetan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:15era eta 16:00etatik 20:30era; larunbatetan 08:30etik 13:15era. Jaiegunetan ez dago gehienezko denbora mugarik.

b) 2 gunea: Portu kale ingurua (bi zati bereizten dira ordutegiaren arabera):

— 2.1 gunea (maiatzaren plaza eta ONCE kabina ondoko aparkalekuak; Portu kale 2 eta 4 zenbaki arteko alde biak) Lanegunetan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:15era eta 16:00etatik 20:30era; larunbatetan 08:30etik 13:15era. Jaiegunetan ez dago gehienezko denbora mugarik.

— 2.2 gunea: (Portu kale, Kale Barriatik Lope Agirre bidegurutzera arte): astelehenetik larunbatera 08:30etik 12:30era. Jaiegunetan ez dago gehienezko denbora mugarik.

c) 3 gunea: Ramon Irizar ingurua (Bidebarrieta bidegurutzetik-Zubibarri osoa Ramon Irizar 2 zenbakiraino) Lanegunetan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:15era eta 16:00etatik 20:30era; larunbatetan 08:30etik 13:15era. Jaiegunetan ez dago gehienezko denbora mugarik.

d) 4 gunea: Motxon ingurua (Bidebarrieta bidegurutzetik Motxon 16raino) Lanegunetan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 13:15era eta 16:00etatik 20:30era; larunbatetan 08:30etik 13:15era. Jaiegunetan ez dago gehienezko denbora mugarik.

e) 5 gunea: Aita Mortara (Agustinoak); Dentistarenekoa (Kale Zaharra 21 eta 23 etxeen artean); Gune honetan bertakoentzako bereizgarria duten ibilgailuek aparkatu ahal izango dute denbora mugarik gabe, beti ere, bertakoentzako bereizgarria ikusgarri izanda. Aparkatze aldia araututa duten gainerako guneetan, bertakoek beste erabiltzaile guztientzat ezarritakoa bete beharko dute.

aplicación, por zonas y según horarios que se regulan en la presente Ordenanza. No existirá obligación de pago por el estacionamiento de un vehículo en los lugares o vías públicas que estén debidamente señalizadas como zonas de estacionamiento regulado.

*Artículo 5.º*

Para estacionar en las vías públicas y aparcamientos a que se refiere el artículo 3 de la presente ordenanza, además de cumplir todas las normas generales y particulares y observarse las señalizaciones que afectan al estacionamiento de vehículos, deberán exhibir en el interior del parabrisas, totalmente visible desde el exterior, el ticket que autoriza el estacionamiento y que se recogerá en la máquina expendedora al estacionar el vehículo, o cuando sea de aplicación, el distintivo de residente para las zonas autorizadas.

Con carácter excepcional, la Alcaldía Presidencia podrá adoptar las medidas que considere oportunas, modificando o suspendiendo, temporalmente las condiciones del estacionamiento reguladas por esta Ordenanza cuando las circunstancias que inciden en el tráfico y el aparcamiento así lo aconsejen.

Estarán exentos de obtener ticket de estacionamiento en las zonas señalizadas como zona de estacionamiento limitado:

— Los vehículos comerciales que estén realizando labores de carga y descarga.

— Los vehículos auto taxis cuando el conductor esté presente y en servicio.

— Los vehículos de urgencias cuando estén prestando servicio.

— Vehículos de los Servicios Municipales.

*Artículo 6.º*

La limitación de estacionamiento se aplicará en las siguientes zonas:

a) Zona 1: Alrededores de Kale Zaharra (Aita Madina, hasta en n.º 3 de Unibertsitate etorbidea): Laborables: de lunes a viernes de 08:30 a13:15 y de16:00 a 20:30; sábados de 08:30 a 13:15. Festivos: estacionamiento sin límite de horario máximo.

b) Zona 2: Alrededores de Portu Kalea (dos zonas diferenciadas según horario).

Zona 2.1 (Estacionamientos situados en la Plaza 1 de mayo y al lado de la cabina de la ONCE; ambos lados de la calle Portu entre los n.º 2 y 4): Laborables: de lunes a viernes de 08:30 a 13:15 y de 16:00 a 20:30; sábados de 08:30 a 13:15. Festivos: estacionamiento sin límite de horario máximo.

Zona 2.2: (Portu kalea, desde Kale Barria hasta el cruce de Lope Agirre): de lunes a sábado de 08:30 a 12:30. Festivos: estacionamiento sin límite de horario máximo.

c) Zona 3: Alrededores de Ramon Irizar (desde el cruce de Bidebarrieta-Zubibarri entero hasta el n.º 2 de Ramon Irizar) Laborables: de lunes a viernes de 08:30 a 13:15 y de 16:00 a 20:30; sábados de 08:30 a 13:15. Festivos: estacionamiento sin límite de horario máximo.

d) Zona 4: Alrededores de Motxon (desde el cruce de Bidebarrieta hasta Motxon 16) laborables: de lunes a viernes de 08:30 a 13:15 y de 16:00 a 20:30; sábados de 08:30 a 13:15. Festivos: estacionamiento sin límite de horario máximo.

e) Zona 5: Aita Mortara (Agustinos); Dentistarenekoa (entre las casas 21 y 23 de Kale Zaharra); Los vehículos con el distintivo de residente podrán estacionar en la zona sin limitación de tiempo siempre que tengan visible el distintivo de residente. En el resto de las zonas reguladas con estacionamiento limitado los residentes se atendrán a lo dispuesto para el resto de usuarios.

EK\CV GAO-I-2016-07240

f) 6 gunea: Bidebarrieta kalea (Errementari plaza alde bietako aparkalekuak, Bidebarrieta 8, 10 eta 12 parean, eta Bidebarrieta 26, 28 eta 30 parean); bertakoentzako bereizgarria duten ibilgailuek aparkatu ahal izango dute denbora mugarik gabe, beti ere, guneko bertakoentzako bereizgarria ikusgarri izanda. Aparkatze aldia araututa duten beste guneetarako, gainontzeko erabiltzaileentzat ezarritakoa bete beharko dute.

*7. artikulua.*

Ordenantza beteko dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da, horretarako behar diren bitarteko materialak eta pertsonalak jarrita.

8. artikulua.

Aparkatzeko gehienezko denbora-tarte hauek ezartzen dira:

— Gehienez 60 minutu. Ezingo da gune berean aparkatu ondorengo 2 orduetan. 20:30etik hurrengo eguneko 08:30era ez dago denbora-mugarik.

*9. artikulua.*

Alkatetza-lehendakaritzak bereizgarri berezia eman ahal izango du gune jakin baterako eta urtebeteko balioarekin:

— Udalaren iritziz, baldintza bereziak dituzten ibilgailuendako.

Bereizgarri hori lortzeko, Zerbitzuetako Batzordeak kasu bakoitzean eskatutako baldintzak bete eta dokumentuak aurkeztu beharko dira.

*10. artikulua.*

Ordenantza honetako artikuluak hausteak, eta Alkatetza-lehendakaritzak honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat hausteak ere bai, trafiko eta zirkulazioko ordenantzaren arau-hauste moduan ulertuko dira eta legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Arau-haustetzat hartuko dira:

1. Aparkatzeko denbora-tartea gainditzea.

2. Tiketa ez hartzea edo ikusten den tokian ez jartzea.

3. Aparkatze-aldi mugatua duten guneetan aparkatzea berriz ere, 8. artikuluak ezarritako bi orduko epea pasatu aurretik.

4. Manipulatutako, faltsututako edo iraungitako tiketa edo bereizgarria erabiltzea.

Arau-hauste horiek arinak izango dira eta trafikoari buruzko udal ordenantzan ezarritako isun kopurua aplikatuko da.

*11. artikulua.*

Ordenantza honetan jaso ez diren kasuetarako, kontuan hartuko dira honako hauek: trafikoari ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legea eta bere garapenerako zirkulazioko Erregelamendu orokorra.

*12. artikulua.*

Guneko biztanletzat hartuko dira Trafiko zuzendaritza nagusian artikulu honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

5 gunea: Kale Zaharra 1-29 (bakoitiak); Kale Zaharra 2-48 (bikoitiak); San Anton; Aita Madina, Aita Mortaran, Foru enparantza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, maiatzaren 1.a plaza.

6 gunea: Bidebarrieta; Zubibarri; Motxon; Atzeko kalea; Kale Barria, Errementeri plaza.

f) Zona 6: Bidebarrieta kalea (Estacionamientos situados a ambos lados de la plaza, Bidebarrieta 8, 10, 12 y Bidebarrieta 26, 28, 30); Los vehículos con el distintivo de residente podrán estacionar en la zona sin limitación de tiempo siempre que tengan visible el distintivo de residente. En el resto de las zonas reguladas con estacionamiento limitado los residentes se atendrán a lo dispuesto para el resto de usuarios.

*Artículo 7.º*

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la ordenanza se establecerá un servicio de control dotado de los medios materiales y personales necesarios.

*Artículo 8.º*

Se establecen los siguientes tiempos máximos de estacionamiento:

— Máximo 60 minutos. No se podrá volver a estacionar en la misma zona durante las próximas 2 horas. Desde las 20:30 hasta las 8:30 del día siguiente estacionamiento sin límite de horario máximo.

*Artículo 9.º*

La Alcaldía-Presidencia podrá otorgar distintivo especial para una determinada zona y con validez anual para:

— Los vehículos que a criterio municipal acrediten circunstancias especiales o excepcionales.

Para obtener el mencionado distintivo, se cumplirán los requisitos y se presentará la documentación que en cada caso solicite la Comisión de Servicios.

*Artículo 10.º*

La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía Presidencia, tendrá la consideración de infracción a las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

Se considerarán infracciones:

1. Rebasar el tiempo de estacionamiento.

2. No obtener el ticket o no colocarlo en sitio visible.

3. Volver a estacionar en la zona de estacionamiento limitado, sin que haya transcurrido el plazo de dos horas previsto en el art. 8.

4. Utilizar un ticket o distintivo manipulado, falseado o caducado.

Las infracciones descritas en este artículo se considerarán infracciones leves y se aplicará la cuantía de la sanción establecida en la ordenanza municipal en materia de tráfico.

*Artículo 11.º*

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, así como en el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo de la misma.

*Artículo 12.º*

Tendrán la consideración de residentes los vehículos registrados en la Dirección General de Tráfico en las calles enumeradas en el presente artículo, siempre que el propietario del mismo se encuentre empadronado en la misma dirección que la del vehículo.

Zona 5: Kale Zaharra 1-29 (impares); Kale Zaharra 2-48 (pares); San Anton; Aita Madina, Aita Mortaran, Foru enparantza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, maiatzaren 1.a plaza.

Zona 6: Bidebarrieta; Zubibarri; Motxon; Atzeko kalea; Kale Barria, Errementeri plaza.

EK\CV GAO-I-2016-07240

Bertakoentzako bereizgarria lortzeko eskaera aurkeztu beharko da ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuarekin batera. Bereizgarrian baimendutako ibilgailuaren matrikula, zein gunetan izango den aplikagarri eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira. Ibilgailuek ezingo dute 9 plazen kopurua gainditu, eta gehienez 6 metroko luzera edo 3.500 kiloko pisua onartuko da.

Bertakoentzako bereizgarria emateak urteroko tasa sorraraziko du: udalak zehaztuko du tasa hori urtero ordenantza fiskalaren bidez. Bertakoentzako bereizgarria lortzeko bete beharreko baldintzaren bat aldatzen bada baimendutako epean, bereizgarria baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikuluak xedatzen duen epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.

Para la obtención del distintivo de residente se deberá presentar solicitud aportando fotocopia compulsada del permiso de circulación del vehículo. En el distintivo constará la matrícula del vehículo autorizado, la zona en la que es de aplicación y el año para el que tenga. Los vehículos serán como máximo de 9 plazas, y no superaran los 6 metros de longitud y 3.500 kilos de peso.

La expedición del distintivo de residente devengará las tasas que al efecto cada año el Ayuntamiento determine mediante ordenanza fiscal. La modificación durante el periodo de autorización de alguno de los requisitos para la obtención del distintivo de residente llevará aparejada la anulación automática de su validez, debiendo ser devuelto al Ayuntamiento en el plazo de 7 días naturales desde que se dé la circunstancia que lo motive, sin que dé lugar a indemnización alguna.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y una vez transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2016-07240